



TANTAKA



•• Laterré Batuetan (Estados Unidos) 170 goizain, pongoizain eta kardinal batu ziran ikasgu nagusian. Gauza askoren artean, meik auzitan erabili ebezan: Umeak zelan azi, eguneroko ta liburua-kaz zelan jokatu, geroago ta geiago sar-tzen yakezan atzeritarrakaz zer egin, munduko beartsuai zelan lagundu... Az-ken-ebatziakaz karta bat argitara emon dabe, oso jakingarria. «Pekatu astuna dala —diñoe— heribil edo olakoren bat aritara harik erabiltea, nohere ta iño-ren bizia galzorian jarririk».

•• Leiria'n il da, 85 urtedun, Fatima'ko Gotzain Jose Alves Correia. Urteokaz geixorik egon arren, beti joan oi zau Fatima'ko Amaren oiñetara meza emon eta beste eleizkizunetara. Berak izentau eban 1922'an batzorde bat, 1917'garren urtean Fatima'n izan ziran Andra Maria'ren agerpenetan ebatzia artzeko; ta batzorde orren eritxia ontzat emonik, 1930'garrenean Andra Maria'ren agerpe-nok egizkoak zirala erabagi eban. Si-ñisgogor batzuk angaitik esameska jar- dun eban; Correia jaunak erantzun eut- sen: «Esan gogora yatorrenen guztia, Andra Maria'k zurituko zaituen». Go-tzainak berak azi ta jagon eban Andra Maria agertu yaken iru umetxoetatik mugusiena ta oraindik bizi dana, Luzia dos Santos. Luzia onok —gaur Coim- bra'ko karmeldar komentuan lekaine— Fatima'n jazoaz ta Andra Maria'k iru umetxoai esanaz, karta bat idatzi eut- sen Correia gotzainari; karta onetako iragarren eta azkeneko ixilla oraindik eza iragarri, ta iragarriko bere ez, 1960' garren urterarte.

•• Telespor Cioli, karmeldarra, Gotzain eriu dabe oraintsu. —Joandako iraila- ren 8'an, amar karmeldar lekaimok gu- ruzera artu eban, laster Aprika'ra joa- teko.

•• Igazko abenduaren erdiruutz, Gaztem'ko irratiz euskal ikaskaik asi ziran, astean iru bider: astelen, eguasten eta barikuz, arratsaldeko sei ta erdietan. Bai ta, ue- tearekin, ango Instituto'an be beste ikastaldi batzuk, Araba'ko Jaurleriak berak idarokita. Iruña'n be beste orren- beste egitekotan ei dabiz.

•• Leitzan jaialdi ederra egin zan, aben- duaren 22'an, Nikolas Ormaetxea, «Ori- xe», euskaltzale aundiaren omenez. Goi- zeko amar ta erdietan, udaletxetik elei- zara eroan eban Orixe'jauna, ezpata- dantzari urtean. Meza oostean, barrero erriko etxera, ta emen egin eban Orixe'k bere itzaldia, Euskaltzaindian sartzeko: gaia: Leitza ta inguruko euskeraren mingor edo azentua zelakoa dan: Mitxe- lena jaunak erantzun eutson, Euskaltza- indiarene izenez. Ondoren, euskaldunok oi dogun lez, bazkari ederra. Bai ta, arratsaldean, euskal-jolasak be erriko plazan: aizkolari, aari-topeka, olentze- ro, dantzari, ta abar. Au batu ziran, jai au alhai eta egokien ospatzeko, zazpi euskal-errietako euskaltzalerik sutse- nak.

•• Irun'en, Bidaso ibai ertzean, olerkari bat il yaku: Joan Basurko Ansoa: «kristau zintzua, gizon ona, guraso leia- la, euskalduna biontez eta egiteza», aben- duaren 25'an, goizeko ordu bictan, joan zan betiko atsodenera. Egada zabalik ez eban egin, beti erri-olerkarien mail- lan jarduna dogu-ta. Baiña idatzia bai, ondo idatzita itxi dausku, baitik bat iru poematxo oncik: *Jesus, San Iñazio ta Arantzazu'ko Ama Birjiñaren poema la- burra*. Goian bego.

•• Aurtengo urtarrillaren 12'an, jaialdi ederra izan zan Bilbao'ko Coliseo Al- bia'n *Gabonetako Agerkizunak* zirala-ta. Euskeraz azaldutako 40 lauki bikain antzetu ziran, Basauri ta Bilbao'ko ereklariak lagunduta.